

TXOSTENA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GURTZARAKO LEKUEI ETA ETA ERLIJO ANIZTASUNARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA

Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak eskatuta egin dugu txosten hau, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari emandako eskumena baliatuz (aipatu idazkaritza Lehendakaritzaren menpekoa da).

Txostenaren helburua da, batetik, 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako jarraibideetan agindutakoa behar bezala aplikatzen dela egiaztatzea, eta, bestetik, gai horiekin loturiko hobekuntzak proposatzea. Aipatu jarraibideak generoaren araberako eraginaren aurretiko ebaluazioari eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoak dira.

Hona lege-proiektuaren helburuak: gure gizartearen bizikidetzeta eta erlijio-aniztasuna babestea; gurtzarako aretoen irekiera era erabilpena direla, aniztasun hori positiboki kudeatzeko elkarrizketa- eta akordio-mekanismoak ezartzea; eta, erlijio-askatasuna izateko eskubidea funtsezkoa denez, jendeak eta elizek, erlijio- konfesioek eta erlijio-komunitateek eskubide hori gauzatu ahal izatea, erlijioen arteko inolako diskriminaziorik egon gabe.

Beraz, xedapen orokorra da, zer-nolako genero-eragina duen ikusteko ebaluatu beharrekoa, Lehenengo Jarraibidearen 2.1. apartatuan ezarritakoarekin bat etorritz. Horretarako, araua sustatu duen organoak egin beharreko generoaren araberako eraginari buruzko txostena egin du, I. eranskinean zehaztutakoaren arabera eta Lehenengo Jarraibideko 3. eta 4. apartatuetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Egiaztatu dugu 4/2005 Legean ezarritako izapide formalak bete direla, bai eta generoaren araberrako eraginari buruzko txostena egiteko jarraibideak ere. Txostenaren edukiari dagokionez, ahalegin handia egin da ezarritako atal eta galdetegi guztiak betetzeko, eta positibotzat jotzekoa da hori.

Lege-proiektuaren deskribapen orokorra egiten da bidalitako **Genero-eraginari buruzko Txostenean**. Orobat bertan azaltzen denez, proiektuan, arauaren izaera dela-eta, ez da berariaz inolako helbururik jasotzen emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa dela-eta, txostenak azpimarratzen du arauak ez daukala aurrekaririk, eta, horrenbestez, zaila dela baloratzea zer nolako eragina izan dezakeen emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatze aldera. Zentzu horretan, proposamen hau jasotzen da txostenean: etorkizunari begira informazioa jasotzea hartzaileei, erlijio-erabilpenetarako lurzorua esleitzeaz arduratzen diren administrazio publikoei eta Erlijioen arteko EAEko Kontseiluaren osaerari buruz.

Hauek dira, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak 2015eko abenduan egindako *Euskal Autonomia Erkidegoan erlijioen aniztasuna ondo kudeatzeari buruzko Txostenaren arabera*, EAEn erlijio-aniztasunari eta haren kudeaketa publikoari dagokionez egon daitezkeen zailtasunetariko batzuk: gizarte- eta erlijio-errealitatearen berri ez izatea, erakundeen arteko harremanak, administrazio publikoaren eta erlijio-entitateen arteko solaskidetzak, ingurune sozialarekiko eta auzoekiko harremanak eta hiri-planeamendua eta kudeaketa.

Arauaren eremuaren egoerari buruzko azterketa osoa eta egokia egiteko behar den informazioa kuantitatiboa zein kualitatiboa jasotzeko zailtasunak kontuan hartuta, txostenean jasotako proposamena onartzen dugu, hau da, etorkizunean EAEko gizarte-eta erlijio-errealitateari buruzko datuak jaso beharko dira, sexuen arabera bereizita.

Bestalde, zenbait datu orientagarri ekartzen dugu hona:

- Gurtzarako tokiak¹, Euskadiko elizen, konfesioen eta erlijio-komunitateen arabera.

Elizak eta konfesioak	Erakundeak, guztira	GURTZA-LEKUAK			
		Bai	Partekatua	Ez	Daturik gabe
Erljio txikiak					
Ebanjelikoak	122	110	0	8	4
Islama	63	40	0	10	13
IJSUD-mormoiak	4	4	0	0	0
Jhovaren lekuko kristauak	63	42	23	0	0
Budismoa	18	6	0	0	12
Ortodoxoak	12	0	0	11	1
Bestelakoak	12	0	0	11	1
Guztira	295	213	23	29	30
Eliz katolikoa	921	75,74%			

Iturria: “*Minorías religiosas y derechos humanos Reconocimiento social y gestión pública del pluralismo Religioso en el País Vasco*”. Gorka Urrutia Asua. 2014. Erljio Aniztasunaren Behatokiak 2016an ikerketari emandako Aniztasun eta Bizikidetzeta saria

Azpimarratzekoa da Euskadin 295 erlijio- komunitate edo entitate minoritario daudela, eta haietatik % 72k baduela gurtzarako leku bat; haietatik, ia % 8k partekatu egiten dute leku hori (batez ere Jhovaren lekuko kasuan), eta % 10 baino apurtxo bat gutxiagok ez dauka gurtzarako lekurik. Ikerketak aipatzen duenez, arrazoi bi egon daitezke gurtzarako lekurik ez izateko: premiarik ez izatea edo aukerarik ez izatea.

Beste datu hau ere azpimarratzen du: komunitate musulmanaren gurtzarako lekuen ratioa askoz txikiagoa da, komunitateen kopurua kontuan hartuta, gainerako konfesio minoritarioena baino. Guztira, 63 entitate dira, eta bakarrik 40tan daude gurtzarako

¹ Erljio-komunitateak leku jakin batzuetan biltzen dira, beren erlijioa gurtzearekin zerikusia duten jarduerak, edo antolakuntza- eta prestakuntza-jarduerak, egiteko: horiexek dira gurtza-lekuak.

lekuak, hau da, % 33,33k ez du gurtzarako lekurik. Horixe da, hain zuen, komunitate islamikoek eten gabe egiten duten errebindikazio bat, beren erlijio-askatasuna gauzatu ahal izateko. Kontua da, baina, estereotipo sozialen boterearen baitan dagoela errebindikazio hori, gure gizartean islama gurtzeko lekuak gatazkarik gabe ezartzea blokeatzen baitute.

- Justizia Ministerioaren Erlijio Entitateen Erregistroan (RER) inskribatutako erlijio-entitateen zerrenda².

KONFESIOA	RER erregistroan erregistratutako entitate-kopurua
Baha Is	1
Budistak	1
Katolikoak	644
Ebanjelikoak	65
Musulmanak	76
Ortodoxoak	6
Beste konfesio batzuk	1
Scientology	2
Guztira	796

Iturria: Justizia Ministerioa

Datu horien arabera, EAEn ezarritako erlijio-komunitate gehienek formalizatu dute bere inskripzioa erregistroan. Hala, RER erregistroaren arabera, 2016an, Espainiako Estatuan, % 75,9koa zen Eliz katolikoaren inskripzioen portzentajea; Euskadin, % 80koa.

² RER izeneko erregistroa publikoa eta bakarra da Espainiako Estatu osorako, eta bertan inskribatzen dira, euren borondatez, erlijio-helburuak dituzten entitateak eta haren federazioak.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO

- Erljio minoritarioen gurtzarako lekuak

KONFESIOA	Gurtzeko lekuak
Budistak	2
Mormoiak	4
Ebanjelikoak	113
Musulmanak	9
Ortodoxoak	2
Jehovaren lekukoak	41
Guztira	171

Iturria: Justizia Ministerioa

- Erljio minoritarioen jarraitzaileen kopuruaren kalkulua (ez da sexuaren arabera berezitako daturik aurkitu).

Elizak	Erakundeak	Fededunak	Herria
Ebanjelikoak	122	19.500	0,90
Islama	63	12.600	0,57
IJSUD-mormoiak	65	4.800	0,22
Jehovaren lekuko kristauak	11	2.500	0,12
Budismoa	18	540	0,02
Ortodoxoak	4	500	0,02
Bestelakoak	12	2.300	0,10
Guztira	295	42.470	1,98

Iturria: *Minorías religiosas y derechos humanos Reconocimiento social y gestión pública del pluralismo Religioso en el País Vasco*". Gorka Urrutia Asua. 2014

- Ingurune sozialarekiko eta auzoekiko harremanei dagokienez, Ikuspegik, 2018ko Barometroan, "Atzerriko immigrazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak" izeneko txostenean aipatzen duenez, EAEko gizarteak pentsatzen du gaur egun harreman apurtxo bat hobea duela immigranteekin lehen baino.

EAEko gizartearen aniztasunaren bizikidetza- eta kudeaketa-ereduei dagokienez, gizarteak jarraitzen du kultura askotariko gizartearen aldekoa izaten, baina jokaera nabarmen asimilazionista dauka. Aniztasuna onartzen du, eta aberasgarritzat jotzen, baina egin beharreko ahaleginari dagokionez, partekatua izan behar duela uste duen arren, ahalegin handiena migratzaileek egin behar dutela pentsatzen du, argi eta garbi. EAEko gizarteak ez du uste, esate baterako, bere bizi-estilo arriskuan jartzen dutenik migratzaileen erlijio-praktikek (hala uste zuen % 69,5ek 2018an; 2017an, % 53,1ek).

Migratzaileen kultura-jarraibideekiko tolerantzia-mailari dagokionez, hobetu egin da agerikoenak diren kultura-jarraibideei dagokienez, hau da, jatetxeak eta dendak irekitzeari dagokionez. Dena den, tolerantzia gutxiago dago kultura-artekotak berezko dituen elementuetan sakontzen denean, esate baterako, migratzaileek beren usadio-ohiturak agertzen, jaioterriko jantziak janzen, beren erlijioak praktikatzeko tenpluak eraikitzen dituztenean...

Proiektuak arautu nahi duen eremuarekin loturako erabakiak hartzeari dagokionez, hau azaldu behar da:

Aldaketa garrantzitsuak ekarri dizkiote gizarteari azken garaietan maila sozialean eta ekonomikoan, politikan eta kulturaren izandako eraldaketek. Testuinguru horren barruan, nabarmen eraldatu da emakumeen egoera, eta eremu publikoan eta produktiboan sartzea lortu dute; baina oraindik ere desberdintasun handiak daude lanpostu jakin batzuk betetzeari dagokionez eta lan berbera egitearen truke soldata berbera kobratzeko orduan. Erlijio-eremuan, desberdintasunak askoz handiagoak dira. Ia erlijio guztietan botere-egituretatik kanpo daude emakumeak, egiturek gizonen eskuetan daude eta. Izan ere, kultu- eta sinesmen-aniztasunak ez ditu aitortzen emakumeak subjektu aktibo gisa, eta hierarkietatik kanpo uzten ditu. Oro har, emakumeak ez daude gurtzaren eta erritualen antolakuntzan; zeremonietan egoten dira, baina fededunak diren aldetik, eta zerbitzu erantsietan parte hartzen dute, baina ez, ordea, “jainkoaren” mezua banatzen.

Dena den, gizarte batzuetan emakumeek apaizgoan sartu dira, eta lortu dute ahotsa eta botoa izatea funtsezko erabakietan; modu horretan apaizgo-eredu misto bat sortu dute, eta hori aurrerapen handia izan da gizarte horietako emakumeentzat.

Bestalde, uztailaren 5eko 7/1980 Legearen babesean sortutako *Erlijio Askatasuneko Aholku Batzordea* Osoko Bilkurak 28 kide ditu, eta haietatik 8 dira emakumezkoak (% 28); Batzorde Iraunkorrak, berriz, 11 kide ditu, eta haietatik 7 dira emakumezkoak.

Beste alde batetik, eta, **Legearen proiektuaren edukiari dagokionez**, positibotzat jotzen dugu emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak kentzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak sartzeari osoko bilkuran:

- Araua eta haren txostena idazteko lengoia ez sexista erabiltzea.
- Erlijio Askatasuneko Aholku Batzordea osatu behar duten pertsonak izendatzean, saiatu behar da emakumezkoen eta gizonezkoen ordezkarien kopurua orekatsua izatea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Dena den, eta generoaren ikuspegia barneratzeko eginahalean aurrera egiteko, hobekuntza hauek proposatzen dira:

Lege honen oinarria da gizakiaren funtsezko eskubideetarikoa bat: erlijio-askatasuna, aldi berean atxikita dagoena beste funtsezko giza eskubideei eta askatasunei. Hala, bada, giza eskubideen nazioarteko arauak urratu ditzakete erlijio edo sinesmen bat agertzearekin zerikusia duten praktika jakin batzuek (edo halakotzat jotzen diren zenbaitek). Askotan, erlijio- edo sinesmen-askatasuna izateko eskubidea aipatzen da eskubideen urraketa horiek justifikatzeko. Eta, askotan ere, emakumeak, konfesio minoritarioetako kideak eta pertsona jakin batzuk, beren orientazio sexuala edo genero-identitatea direla-eta, izaten dira urraketa horien biktimak.

Horregatik guztiarengatik, lege honen baitan sortuko den Erljioen arteko EAeko Kontseiluaren funtzioen artean sartu beharko da giza eskubideen babesa bermatu beharra, baita diligentziaz jardun beharra ere, egoera hauek guztiak saihesteko: emakumeen aurkako ekintza bortitzak, ohore-krimenak, emakumeen genitalen mutilazioa, ezkontza goiztiarrak eta behartuak eta orientazio sexualarengatik edo genero-identitatearengatik pertsona batzuek nozitzen duten biolentzia-mota guztia, biolentzia preskripzio edo praktikaren aitzakian baliatzen denean ere bai.

Orobat, organo hori Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren 4/2005 Legearen 24.1. artikulua agindua betetzeko, eta, horrenbestez, berariaz jasotzeko proposatzen dugu.

Azkenik, positibotzat jotzen dugu lege proiektuaren testuan lengoaia ez sexista erabiltzeko ikusten den ahalegina.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 31